

LAUAXETAREN ALDERDI ERROMANTIKOA

0. SARRERA

Deustu Unibertsitateko Euskal Filologian irakasle nintzenean, Lauaxetaren erromantizismoa aztertzen hasi nintzen. Ez nuen azterketa bukatzeko astirik izan. Hementxe duzu lantxo.

1. OLERKIGINTZA EUSKAL HERRIAN

Literaturaren trenak berandu heldu izan dira Euskal Herrira.

Olerkigintzan, antzerkigintzan, eleberrigintzan europarrek gizaldi anitzetan bide luzea egina zuten bitartean, euskaldunak inora abiatu gabe zeuden, noraezean, trenetan sartzeko zain, baina trenok nondik nora zebiltzan jakin gabe. Europako literatura ostatuan beste europarrak afaltzen ari zirenean, gu gosalteko ginen artean.

Europako eleberri idazleek gizaldi askotan fruitu bikainak eman eta gero, joan zen gizaldecaren hasieran hasten gara eleberriari ekiten.

William Shakespeare XVI gizaldian *Hamlet, Prince of Denmark* eta beste antzerki handiekin antzerkiaren gailur-gailurrera iritsi bazen ere, Euskal Herrian XX gizaldian antzerki-

gintzaren hastapenetan geunden. Oraindik ere tragedietan larru gorri gaudela esan liteke.

Neurri batez horixe gertatzen da poesian ere. Bertsolariek aspalditik emaitza bikainak eman arren, Euskal olerki poetikoa Lauaxetarekin jaio dela esan genezake XX gizaldian.

Lan honetan nik Lauaxetaren olerkietan ikus litezkeen alderdi erromantikoaz zertzelada labur batzuk eman nahi nituzke. Erromantikoen mugimendua desagertu eta gizaldi bat geroago agertzen zaigu Lauaxeta erromantizismoz jantzia. Egia da beste eraginik ere baduela baina garbiena erromantikoena igartzen zaio. Hain zuzen ere alderdi erromantiko hau oraindik ez da nahiko aztertua izan.

2.0. ERROMANTIZISMOAREN HISTORIA

Erromantizismoa Frantziako Iraultzaren (1789) eta Komunisten Ageriaren (1848) arteko mugimendua da. Guk hemen literaturari dagokion neurrian aztertuko dugun arren, erromantizismoak gizarteko adar guztiei eragin zien, kulturari, politikari, arteei eta ohiturei.

“Romantico” hitza frantses zaharretik heldu da, “romanz”etik. “Romanz” latinetik sortutako hizkuntzak ziren, italiara, gaztelania...

Erromantizismoa neoklazisismoaren jazargoan sortu zen.

Frantsesek XVII eta XVIII gizaldietan Europako literatura neoklazisismoaren ildoetan eraman nahi izan zuten. Neoklazisismoak arrazoia ipintzen zuen literaturaren gidari. Bestalde, grekoen eta erromatarren arauak, Aristotelesen Poetika eta Horazioren irakaskintza, estu-estu hartzen zituzten.

Erromantikoak neoklazisismoak bortxarazi nahi zizkien legeen aurka altxatu ziren.

Ingalaterran hasi zen. “The Lake Poets”, “Aintzirako poetak”, William Wordsworth (1770-1850), Robert Southey (1774-

1843) eta Samuel Taylor Coleridge (1772-1834) erromantizismoaren aitzindaritzat har genitzake.

Bidenabar, oroit gaitezen Wordsworth-ek oso maiteak zituela bizkaitarrak eta poesia bat Gernikako arbolaz egina duela ("The Oak of Guernica". Ikus ELKOROBЕРЕZIBAR, M.A. *William Wordsworth politikari eta poeta, Espainiar eta euskal gaietako sonetoak eta euren inguru giroa*, Enseiucarrean, Deustu Unibertsitatea, 1988).

Percy Bysshe Shelly (1792-1822), John Keats (1795-1821) eta batez ere Lord Byron (George Gordon, 1788-1824) dira mugimendu honen ordezkariak. 1810-1825 da Ingalaterrako erromantizismoaren gailur aldia.

Walter Scott (1771-1832) izan zen erromantikoek horren maite zuten Erdi Haroko giroa bere eleberrietara aldatu zuena.

Ingalaterratik Alemaniara hedatu zen erromantizismoa. Nazio honetan aurkitu zuen erromantizismoak bere teoriagilerik entzutetsuenak.

Alemanian Sturm und Drang (Ekaitz eta oldar) mugimendua erromantizismoaren aurrelari izan zen. Götheren Werther-ek (1774) erromantiar heroia alderdi asko zuen.

Erromantizismoaren izena batez ere Schlegel anaiekin (August Wilhelm 1767-1845, Friedrich 1772-1829), Friedrich Hölderlin (1770-1843), Novalis (Friedrich von Hardenberg 1772-1801), Ludwig Tieck (1773-1853), Wilhelm Heinrich Wackenroder (1773-98) eta Friedrich Schleiermacher-ekin (1768-1834) tinkatu zen.

1789ko Iraultzak lagundu zion erromantizismoari Frantzian sartzen. Mme de Staël (1766-1817) eta Chateaubriand (1768-1848, *Génie du Christianisme*) izan ziren aitzindariak. Alphonse de Lamartine (1796-1869, *Méditations poétiques* 1820), Alfred de Vigny (1797-1863, *Poèmes antiques et modernes*, 1826), Alfred de Musset (1810-1857, *Les nuits*) eta Victor Hugo (1802-1885, *Hernani*, *Nôtre Dame de Paris*) aipatu ohi

dira Frantziako erromantizismoaz mintzatzean. 1830tik aurrera hamabost bat urtez erromantizismoa erabateko nagusi izango da Frantzian.

Italian Giacomo Leopardik (1798-1837) eta Alessandro Manzoni (1785-1873) erromantikoen ildotik jo zuten.

Errusian, berriz, Alexander Puxkin (1799-1837) (*Kapitanaren alaba*).

Estatu batuetan ere loratu zen erromantizismoa. Lau idazle ekar genitzake gogora: Fenimore Cooper (1789-1851, *The Last Mohican*), Henry Wodsworth Longfellow (1808-1852, *Evangeline*), Edgar Allan Poe (1809-1849: misteriozko kontakizunen aita eta poesia kritikari zorrotza). Eta, jakina, XIX gizaldiko lehen erdian goren gorenera iritsi zen Nathaniel Hawthorne (1804-1864, *The Scarlet Letter*).

Erromantizismoa arte guztietara hedatu zen. Musikan Felix Mendelssohn-Bartholdy (1809-1847), Robert Schuman (1810-1856), Frédéric Chopin (1810-1849, Nocturnes), Berlioz (1803-1869, *Symphonie fantastique*, *La Damnation de Faust* (1846), Franz Liszt (1811-1886), eta Richard Wagner (1813-1883) emozioa eta formaren askatasuna elkartzen ahalegindu ziren.

Pintoreen artean Eugène Delacroix-ek kolore biziez egotzi zituen bere laukoetara erromantizismoaren nahigabeak eta irritsak (*Sardanapale* (1827), *Le Radeau de la Méduse*. Ikus bibliogr.: MARCHIORI, Giuseppe: *Delacroix*, Ediciones Toray, Barcelona, 1971 eta VAUGHAN, William: *Romantic Art*. Oxford University Press, New York & Toronto, 1978).

Espanian erromantizismoa berandu azaldu zen. Erromantizismoaren etorrera nolabait ere Juan Melendez Valdez (Fresno-n, Badajozen sortua, 1754-1817) aldarrikatu zuen.

“Durch das Gefühl eben ist Meléndez Vorbereiter der Romantik” “Hain zuzen ere sentimenduarengatik da Melendez erromantizismoaren apailatzailea”. (BEHLER, Ernst: *Die*

Europäische Romantik, 277 or. Ikus BAE, XVIII, e. Madrid 1952 Tomo 63).

Neoklazisismoan bizi arren, Meléndez, aurreratu egiten zaie erromantikoei, parajea sentimenduei lotzen baitizkie.

Dena delarik, Espainian 1800tik aurrera hasiko dira sartzen erromantizismoaren idciak.

Loraldia 1834 eta 1844 artean kokatu ohi da, hots, Francisco Martínez de la Rosaren (1787-1862) *La conjuración de Veneciaren* eta Jose Zorrillaren (1817-1893) *Don Juan Tenorioren* edo *Traidor, inconfeso y martiren* artean.

Aldi horretakoa dugu eta erromantiko bete-betea Duque de Rivas (1791-1865). Bere *Don Alvaro o la fuerza del sino*-k eman zion Verdi bere opera indartsua egiteko inspirazioa.

Mariano José de Larra-ren *El doncel de Don Enrique el Doliente* (1834) eta Enrique Gil y Carrascoren *El señor de Bemibre* (1844) (Villafranca del Bierzon jaioa, Leon, 1815-1846) eleberrietan erromantiar ezaugarri nagusiak aurki litezke. Oso aintzakotzat hartuak izan ziren elaberriok.

Poetetan José de Esproncedaren (1808-1842) *Canción del pirata* eskolan buruz ikasten genuen geure umetan. *El estudiante de Salamanca* ere badu erromantikoen kutsu askorik.

1844tik aurrera erromantizismoa beherantz doa. Halere hor ditugu 1860z geroztik Adolfo Bécquer (1836-1870) eta Rosalia de Castro (1837-1885).

2.1. Erromantizismoaren ezaugarriak

2.1.1. Askatasuna eta bide berriak

Bi dira erromantizismoaren ezaugarri nagusiak: Askatasuna eta xede berriak. "Liberté eta horizons nouveaux".

Biok elkarri lotuak daude. Libertateak lehenago debekatuak edo ezezagun ziren helburuetara bultzarazten ditu erromantikoak.

Neoklazismoaren kateak urratu nahi dituzte. Idazlea ez dago ezein ere arauen mende. Antzerkietan, esate baterako, akzioaren batasunari bakarrik jaramon egiten diote.

Libertatea literaturan ez ezik, bizitzan ere erdietsi nahi dute. Legeen eta bortxaketen kontra daude.

Rousseauri jarraituz, indioen eta herri basatienganako maitasunak irazeki egiten ditu erromantikoak. Bizimodu naturala laket dute eta gizarteko ohitukeriak gorroto. Uztarri guztiak txarrak. Esklabotasuna iguingarri.

Erromantikoak zintzo jokatu ziren gizarteko askatasunaren alde.

“The deep social engagement of the Romantics’ poetry has not been sufficiently emphasized” (Kelvin Everest, 86 or. Ikus Bibl.)

“Erromantikoen ekintza gizartean ez da izan nahiko azpimarratua”

Byron izan liteke asaldatze sukar horrek betean atzeman zuen erromantikoa. Greziara joan zen nazio hari turkoen uztarpetik jaregin egiteko. Beraren *The Corsair*-ek edo José de Esproncedaren *La canción del piratak* askatasunaren bandera inarrosi zuten.

Ezagun dira Larraren hitzok:

“Libertad en la literatura, como en las artes, como en la industria, como en el comercio, como en la conciencia. He aquí la divisa de la época”. (*Poesía romántica*. Clasicos Ebro. Zaragoza, 1971, 12 or.)

Lope de Vega, *El Quijote*, Calderon eta Shakespeare, nahi bezain handiak izan arren, baztertuak izan ziren neoklasizismoan, hiru lege klasiko famatuei jarraitu ez zitzaizkielako.

Erromantikoek, berriz, alemanek batez ere, idazleok oso goraipatzen dituzte.

Eugène Delacroix-ek suharki eman zigun begietara askatasunaren aiherra bere lauko famatuan: *La Liberté guidant le peuple*.

Egiazko askatasunak aurrerabidera darama: horra hor erromantikoen uste errotua. "Fortschrittsglaube".

2.1.2. Berezitasuna

"The individual self". "Der Reiz des Einzigartigen". Nor nor da: indibidualismoa. Pertsona bakoitza eta gauza bakoitza berezia da, partikularra, beste ezer edo inor ez bezalakoa.

Emakumeak ere, guztiak diferente dira. Bakoitzak badu bere berebiziko edertasuna. Hemendik heldu da alemanek "Ich-Kult", "Norberaren kultua" deritzatena.

Herriek ere beren Volkgeist dute, beren izpiritu, hizkuntza eta izaera bereziak, Johann G. von Herder-ek (1744-1803) aldarrikatu zuen bezala. Bera izan zen nazio guztietan eragin iraunkorra izan zuen abertzaletasunaren lehengo teoriagilea. Navarro Villoslada, Rivas, Zorrilla izpiritu horren oihartzuna izan ziren. Luisek eta bere anaia Sabino Aranak Herderengandik zetozen uretan edan zuten.

2.1.3. Sentimendua

Erromantizismoa da lirikaren urrezko garaia.

"Le coeur, c'est le génie", esan ohi zuten Frantziako erromantikoek. "Bihotza eta jenioa bat dira".

Emozioak, barne bizitza eta sentimenduak arrazoiak baino baliotsuago dira, erromantikoen ustez.

Neoklasikoak zentzuan eta ordenan sentitzen baziren beren gogara (Partenon bere neurri zehatzekin zen beraien sinbo-

loa), erromantikoek grinaren, oldarraren eta sentimenduen zurrunbiloetan egiten dute gustura igerian.

Gertakizunak subjektibismoaren barna iragazten dituzte. Lan artistikoekin ez dute irakatsi nahi, sentiarazi baizik.

Poesia bihoztia, sentikorra, grinatsua bilatzen dute.

Amets negartiak, atsekabetuak gogorakoak dituzte. Beraien lirismoa bihotz erdiragarria da: "lirisme bouleversant".

Negarrari inportantzi handia ematen zaio. Lauaxetaren olerkigintzan "negar" giltza hitz nagusi bat da.

Erromantikoek sortu duten giroari Frantzian "mal du siècle" deitzen diote. Gizaldiaren gaitza. "Weltschmerz" esaten diote Alemanian. Nahigabea, kezka eta malenkonia. Barneko ezina, nahikunde iritsi ezinak eta etsipena oso nabarmenak dira: "melancolía romántica tan enfermiza y tan fácil de distinguir en la lectura de cualquier poema" (Poesía romántica. Antología. Introducción de Blecua, p. 14)

Birikietako gaitza erromantikoen gaitza da. Keats, Bécquer gaixo horrekin azkendu ziren.

2.1.4. Maitasuna eta emakumea

Sentimenduak bere altxorrik eta habiarik barnekoiena emakumeagan edireten du. Emakumearen maitasuna da erromantikoen azken helburua. Idealistic love. Emakumeak ez dira objektiboki, diren bezala ikusten, idealizatuak baizik, poetak imajinazioz ikusten dituen bezala, dohain bereziz jantziak. Horrelakoa da Lauaxetaren "Maitale kutuna".

Beraz, iritsi ezin daitekeen emakumea da: "representation of the unattainable ideal." Heineren *Intermezzo lirico*-k azalduko luke sentimendu hori. Lehengusinarekin ezin ezkontzeak ematen dion nahigabea.

Jelosia, emakumearen traizioa edo axolagabekeria dira sarri kantagai. Giro hori ikusten dugu Lauaxetaren “Artzai baten eriotzean” olerkian.

Shelley-k honela zioen: “gure kanturik eztiak pentsamendurik tristeenez eginak daude”. Sufrimendua da poesiaren iturburua.

Emakumearen baitan arimako dohainak gorputzarenak baino inportanteago dira. Emakume batekin zoriontsu izateko, arimaren eta gorputzaren batasuna eta harmonia lortu behar dira.

Diaz Plaja: “La mujer es un producto de la circunstancia del poeta; y, como toda ella, aspira a que sea una proyección de su espíritu. La mujer - como el paisaje, como la sociedad - es una creación subjetiva”.

Emaztekiak gizonaren bizitzan garrantzi handia du: Juan Tenoriok bere arima Doña Inesi esker salbatuko du.

Maitasunak ez du bukaerarik. Kristautasunak areagotu egiten du uste hau. Maitasuna erlijioari lotua dago. Betikotasunaren izaria ematen dio.

“Dies alles erwarteten die Romantiker von der Liebe, und sie verlangten sogar noch mehr: religiöse Erfüllung” Schenk, Hans, 143 or. *Geist der Europäischen Romantik...*

“Eine solche Vermischung von heiliger und irdischer Liebe zieht sich als ein Leitthema durch das ganze romantische Denken” (Schenk 143 or. *Geist der Europäischen...*)

“Erljiozko eta munduko maitasunen elkartzea gai nagusi ikusten dugu erromantiar pentsamenduan”.

“Doch selbst Rousseau, der in vielem die romantische Liebe schon vorweggenommen hatte, wagte es noch nicht, sie als höchsten Wert anzuerkennen.” 144 Schenk, Hans G. *Geist der Europäischen...*

“Rousseau bera ere, erromantikoen maitasunaren aurrelari izanagatik, ez zen ausartu maitasuna balio nagusizat ezartzen”

“Erst seit dem Beginn der Romantik kann man im vollen Sinne von einem hemmungslosen Kult der Liebe sprechen” Schenk, *Geist der europäischen...* 144

“Erromantizismoarekin hasten da esanahi osoan ageri-age-riko emakumearen kultura”

2.1.5. Irudimena. Imajinazioa

Mundu berria, besteak beste, fantasian, sentikortasunean eta irudimenean aurkitu dute erromantikoek. Neoklazismoaren arrazoi-barrutian beren buruak estu barrundatzen dituzte.

“If we wish to distinguish a single characteristic which differentiates the English Romantics from the poets of the eighteenth century, it is to be found in the importance which they attached to the imagination” BOWRA, C.M. *The Romantic Imagination*. Oxford University Press, 1969 1.or.

Diferentziarik handiena erromantikoetan irudimenari ematen dioten pisuan datza.

Klasikoek egia ezarri zuten gailurrean. Erromantikoek imajinazioaren indarra, Jainkoaren sort-indarraren parekoa baita.

“When it [imagination] is at work it sees things to which the ordinary intelligence is blind and that it is intimately connected with a special insight or perception or intuition” BOWRA, C.M. *The Romantic Imagination*, 7. or.

Imaginazioak berebiziko barne ikustea eta intuizioa ematen ditu.

Friedrich SCHLEGEL-ek garbi esaten zuen: “Nach meiner Ansicht und meinem Sprachgebrauch ist eben das Romantisch, was uns einen sentimental Stoff in einer phantastischen Form darstellt” 9 or. in BEHLER, Erns: *Die Europäische Romantik*, Athenäum, Frankfurt am Main, 1972.

Erromantizismoak sentimen gaiak arropa fantastikoez janzten ditu.

2.1.6. *Espresio teoria. Inspirazioa*

Erromantikoak “Imitazio” teoriatik “espresio” teoriara has-tantzen dira, hots, kanpoko errealitatearen kopiak egitetik nor-beraren sentimenduak eta desioak azaltzera.

Ez dute poesia buruaz egiten; bihotzera jotzen dute eta handik sortzen poesia. Kreatzioa ez da kokatzen kanpoko gau-zetan, idazlearen baitan baizik. Ez dute laket bizitzaz gogoeta egitea. Bizitza sentitu gogo lukete. Irudimenari eta inspirazioari ateak zabal zabalik uzten dizkiete.

Erromantikoek ez dute bihotzaren eta poesiaren artean tra-barik ikusi gura.

Horregatik ez dute neoklasikoek bezala tragedia klasikoak imitatu nahi

“Romanticism is a withdrawal from outer experience to concentrate on inner experience” 13 or. Hitzok Abercrombie-renak dira. In LU CAS, F.L. *The Decline and Fall of the Romantic Ideal*.

Romantizismoa kanpoko esperientzietatik alde egin eta bar-neko esperientzietara bihurtzea da.

2.1.7. *Halabeharra. Fatalismoa*

Bizitzan ez du agintzen arrazoiak, adimenak edo logikak.

Gizakia halabeharraren atzaparretan dago edozein unetan. Eta gehienetan halabeharrak zoritxarrera kondenatzen du. Batez ere maitasunez elkarturik direnentzat ankerra eta bihotz gabea da.

El señor de Bembibren, Hartzenbusch-en *Los amantes de Teruelen*, *Don Alvaro o la fuerza del sino*-n, Larraren *Doncelean* maitagarri den guztia hondamenera doa. Fatalismorik zantarrena da jaun eta jabe.

Beste poetetan bezala, halabeharraren madarikazioa nabari-nabari da Lauaxetaren olerkietan.

2.1.8. Heriotza

Heriotza literatura guztietan gogoetagarri izan da. Bai kontakizunetan, bai tragedietan eta bai poesian.

Ekar dezagun gogora klasiko bihurtu diren “Las coplas de Jorge Manrique”. Baina geroztik ere etengabeko gaia izan da Espainiako poesian. Quevedok poesia asko du heriotzari buruz (Rosales, Luis: *Poesía española del siglo de oro* 149 hurr.). Aurrerago, beste askoren artean Lupercio Leonardo de Argensola (1559-1613) “Imagen espantosa de la muerte”z mintzatuko da (ROSALES, L. *Poesía española del siglo de oro* 80 or.).

Euskal poesian ere jorratua dugu heriotza, Iparraldean batez ere. “Goizean goizik”, “Hogeigarren urtera ari naiz hurbiltzen”, “Haur hilaren arreba eta ama”... usu kantatzen dituzten mugaz beste aldean.

Erromantizismoaren poesian, ordea, heriotza kezkarik nagusienetako bat bihurtzen da, bai eta heriotzari lotuak dauden gorputz aldaketak eta zahartzea.

Erromantikoak maitasuna betiko dela uste dute eta horregatik betiko bizi nahi lukete, gazte bizi, beti eder.

“One of the chief concerns of romantic poetry, then, is to come to terms in some way with change, old age and death.”
HOUGH, Graham: *The Last Romantics*, University Paperbacks, Methuen, London eta Barnes & Noble, New York, 19617, 121 or.

Heriotza, zuzen edo zeharka erromantiko guztien olerkietan agertzen da. Eta Lauaxetarengan ere bai. Aski da gain-gaineko begiratu bat egitea, bere olerkietan hiltzearen kezka eta ardura ikusteko.

2.1.9. Tokiak. Natura

Erromantikoek natura aurkitu zutela esan ohi da. Naturaleza bere hartan, berezkoa, latza, librea, bortxatu gabea, indartsua, hezigabea. Zibilizazioak jantzi arazi dizkion apaingarririk gabe. Hemen ere Rousseauren eragina handia da.

Urrutiko gauzetan, toki exotiko eta dramatikoeetan gozaten dira erromantikoak.

Gazteluko hondakinetan, jauregi suntsituetan, paraje goibel eta malenkoniatsuetan, komentu ezkutuetan, kanposantu, panteoi edo sorgin-zuloetan beren arimaren bakartasunera eta bettera iristen dira.

Ekaitz eta itsaso irakinak toki aproposak dira erromantikoentzat beren ausartzia eta kemena frogatzeko. Mundu guztia-
ren aurrean heroiak direla erakutsi nahi lukete.

Egun argia baino laketago dute gaua eta iluna, misteriora errazago eramaten dituelako.

Gaua erromantikoen kantagai usua da. NOVALIS, *Hymnen an die Nacht*, Alfred de MUSSET, *Les nuits*, "Au coucher du soleil, tristement je m'assieds", Alphonse de LAMARTINE, *L'isolement* [Ikus Bib. BERTHON: *Nine French Poets*].

Becquer da hemen ere eredu: "*Los ojos verdes*", "*El monte de las animas*".

Ilargiak garrantzi handia du. Alfred de Musset-ek (1810-1857) badu ilargiari egindako balada famatua: "Ballade à la Lune", "El rayo de luna" (Becquer). John Keats-ek (1795-1821) "Endymion" poeman ilargia edertasunaren sinbolotzat hartu zuen.

Parajea poetaren proiektzio espirituala da, bizirik dago. Poeta pozik baldin badago, naturaleza ere bai. Triste badago, naturalezak negar egingo du. Naturaleza maiz haserre da edo goibel; "endowing inanimate objects with human values": "gauzei giza balioak eransten dizkiete".

Goethek "naturarekiko sentimen mistikoa" deitzen zuen.

Horixe ikusten dugu Louis David-en pinturetan, haren zuhaitz basa eta latzetan eta haren ilargiko argi zergeletan "to suggest an infinity of human longing, the Weltschmerz of his time." (giza desioen mugagabea, bere denborako mina).

Urretxindorra sentipenaren sinboloa da. William Wordsworth-ek, Coleridge-k eta John Keats-ek urretxindorrari bertsoak egin zizkioten. Heine, berriz, Rheineko urretxindorra deitzen zuten: Die Nachtigal des Rheins. Lauaxetak ere txori hori gogozkoa du.

2.1.10. Gertakariak. Erdi Aroa

Neoklasikoek antzinate klasikoa maite zuten. Beraientzat aldi hura bikain-bikaina, itzal gabea zen. Gizartea arrazoiak zuzentzen zuen arotzat zeukaten. Erdi Aroa, ostera, aro beltza begitantzen.

Erromantikoek, berriz, ez dute grekoen eta erromatarren aldi klasikoa maite. Haien mitologia eta kultura aspergarri eta maiz nazkagarri zitzaien. Nola onar esklaboen gainean oinarritutako orduko gizartea?

Askatasunean finkatutako bide berrien, mundu berrien, esperientzi berrien bila sugartsu saiatuko dira. Gertakari harrigarriak maite dituzte: azti ipuinak, legendak, misteriozko kontakizunak.

Berriz ere Gustavo Adolfo Bécquer-en ipuin harrigarriekin topo egiten dugu: *Maese Pérez el organista*, *El monte de las animas*. Edo eta Zorrillarekin, *A buen juez, mejor testigo*.

Alemanek supernaturala berriro aurkitu zutela esan ohi da. Rimbaud-en esaeraz oroitzen gara: olerki egitea “ez ezagunarengana hurbiltzea” da edo “ikus ezina ikustea, entzunezina entzutea”.

Erromantikoek eguneroko bizitza arruntetik ihes nahi dute.

Erromantizismoa, Abercrombie-ren ustez klasizismoaren kontra baino, errealismoaren kontra dabil.

“Professor Abercrombie has transferred the conflict to a fresh front. For him Romanticism is the opposite, not of Classicism, but of Realism.” (LUCAS, F.L. *The Decline and Fall of*

the Romantic Ideal, Cambridge at the University Press, 1963, 12 or.).

Erdi Aroan aurkitzen dute inspirazioaren iturria. Hain zuzen ere neoklasikoek beltz eta arrunta omen zelako arbuia-tzen zuten aroa. Orduko istorioek, orduko baladek (Coleridge, WORDSWORTH: *Lyrical Balads*), legendek (Zorrilla) eta herri kantuek berebiziko zirrara egiten diete. Erdi Aroko kristau giroa ere jainko paganoen mundua baino hurbilago sentitzen dute.

Erromantikoek erromantzeak asmatzen dituzte. Irakur Duque de Rivas-en *Romances históricos*. Walter Scottek erdi aroan kokatu zituen bere eleberri entzutetsuak. *Ivanhoe* izan liteke ezagunena eta hoberena. Maiz inongo euskarri historiko-rik ez duten kontakizunak dira, giroa ongi pintaturik agertu arren.

Richard Wagnerek ere Erdi Aroan aurkitu zuen bere tragedien gaia: *Sigfrido, Tristan, Parsifal, Walkiria, Die Götterdämmerung...*

2.2. Gehigarria:

Honatx erromantikoen olerkietan aurkitzen ditugun topikoak. Denak aurkituko dituzu Lauaxetaren olerkietan. Siglak bibliografian aurkituko duzu. Zenbakiek orriak dira:

Rosal V.G.D. 192,198,202 CR 14,34,49,88,96,195

Primavera: V.G.D. 200, 211, 219, 270

Ruiseñor: V.G.D. 203 CR 69,88,96,170,189 R 82 P 102

Tarde Noche: V.G.D. 212 R 46,103,128

Luna: V.G.D. 240,242,265 CR 54,126 R 110

Tristitia V.G.D. 333 R 29,83,93

Iturri CR 49,

Zelayan CR 112,

Abenamar CR 148

Trescientas damas CR 155

Suspiros R 15,29,40,93,100
 Mar R 23,29
 Herido R 23,
 Patria R 38,41
 Refran: R 51,64
 Pirata R 64
 Libertad R 113
 Sepulcro R 128
 Rayo R 100,128

3. LAUAXETA ERROMANTIKOA. ZERTZELADA LABURRAK

3.1. Irakurri zituen olerkariak

Lauaxetak (1905-1937) hurbildik jarraitzen zuen Espainiako eta Europa guztiko olerkigintza. Bai jesuita zela eta bai geroago ere (V Garate, G. "Lauaxeta Jesusen Lagundian", in KAR-MEL, 2003-2004, Urria-abendua, 244, 3-24 orr.)

Berak esanez edo bere lagunen bidez badakigu poeta hauek guztiok ezagutzen zituela:

Chenier, Foscolo, Leopardi, Carducci, Fray Luis de Leon, San Juan de la Cruz, Dante, Mallarme, David, Goethe, Keats, Costa y Llovera, Sofokles, Platon, Teokrito, Horatius, Menendez y Pelayo, Vurgilio, Heine, Maragall, Novalis, Valery, Lamartin, Baudelaire, Gongora, Boileau, Victor Hugo, Musset, Klopstock, Becquer, Thierry, Barbey, D'Aurevilly, Apuleyo, Petronio, Juvenal, San Agustin, Alfonso el Sabio, Berceo, Juan Ruiz, Diego de Valera, Bernaldez, Mena, Santillana, Bataille, Richepin, Manzoni.

Literatura kontuetan bere jakinduria Lizardirena baino zabalagoa zen. Lizardi, ordea, orijinalagoa da, beharbada poeta klasikoei eta modernoci ez zegoelako horren lotua.

Lauaxetak berak aitortzen zuen lotura hori:

“Or-han entzun eta ikasi dodazan gogai batzuk neure bijotzaren barnetik euzkeralduta, agertu dodaz” (Lauaxeta: Mensajero, 1974. 95 or.)

Horixe ere literaturan oso ongi jantzia zen, baina bere lanean askoz mugatuago ikusten dugu. Euskal Herria eta erlijioa dira berak jorratzen dituen gai nagusiak. Maitasuna eta emakumea zeharka bakarrik ikusten dugu bere liburuetan.

Jakingarriak dira Lauaxetaren beraren hitzok:

“Baiña arengandik (Horixe-rengandik) aldunduten nau zerbaitek. Gogo zabalduagotxoa?” (136 or. *Azalpenak*)

3.2. Iturriak

Lauaxetaren olerkigintzak iturri nagusi batzuk nabari dira: literatura klasikoa (jesuita zela ikasia), Espainiako literatura, erromantizismoa, parnasianismoa, sinbolismoa, modernismoa.

Berak bezala azken gaiztoa izan zuen Garcia Lorca-ren *Romancero gitanoren* inspirazioa igartzen dio Juan San Martinek. Biek azken gaiztoa izan zuten

Mikel Zaratek 27.eko belaunaldiaren eragina ere sumatzen du Lauaxetarengan (Zarate: *Euskal literatura*, II, 10 or.)

Gu ez gara iturriok aztertzen hasiko. Luzeegi joango litzateke eta erromantizismoaren ildora itzuliko gara. Honetaz ere zertzelada batzuk bakarrik egingo ditugu.

3.3. Zergatik idatzi

Ez dago Lauaxeta ulertzerik, abertzale eta giristino dela goan eduki gabe.

Bide barriak bukaeran, “Uarra”n, behin eta berriz esaten digu hori:

“Eztot gixonakaitik egin, Aberrijagaitik baño..... Euzkadi Amaren maitasunak jo-naulako..... Maitasuna, Aberrija ta Uskurtza ixan dira gairik ugarijenak olerkarijenzat, neuretzako

be bardin. Ludiko gairik kutunenak onexek jataz, Jel-pian esituta..... Euskaraz idazten dot, Aberrijaren izkuntza dalako. Soluan atxurretan aberrija goralduko nebala, uste ba'neu, laster itxiko neuke lan au." (Mensaj. 1974, *Bide barrijak*, 95 or.)

Eta bukatzeko honelaxe dio:

"Agur, eta Aberrija maitatu, Jaungoikua'ren urrengo".

Eta *Arras beran*, hitzaurrean (Mensajero, 1974, 99 or.):

"Elerti-zale nazan onek ziarkeri ta pirtxilleritzat daukodaz olerkijok. Maisilarijak esango dabez esatekuak! Baña ele lander baten seme jayo nintzan ezkerro bertso ñimiño oncik, be, argitara datorz." 99 or.

Bere jokabidea hitzotan mamitua dago:

"Dena eman bihar yako

maitte dan azkatasunari" ("Mendigoxaliarena").

Lauaxeta abertzale eta giristino da. Bi alderdiok gogoan edukitzen ez dituenak ez du Lauaxeta ulertuko, Oscar Wilde-n joera sexuala gogoan hartu gabe *The picture of Dorian Grey* ulertezina den bezala edo Dovstoievski errusiar eta eslabo zalea zela ahazten duena *Karamasov anaiak*-en mamiaz jabetuko ez den bezala.

Dena dela, Lauaxetak berak bere olerkiak Euskal Herriaren alde egiten zuela esan arren, garbi baino garbiago dago aspalditik, jesuita zenean ere, sumatzen zuela bere baitan literatura sortzeko grina (V Gotzon Garate o.c.).

Arrazoiez dio Kortazarrek:

"Baina ez dot uste bere asmoa politikoa zanik huts-hutsik. Ba dago, egon behar eban, asmo literarioa" (JON KORTAZAR. *Azalpenak* 22)

3.4. Lanak

Bide barrijak (1931) 42 olerki. Sentipen gaiak.

Arrats-beran (1935) 40 olerki. Ariñagoak, laburragoak, euskara errazagoa.

Arostegik: “*Arrats-beran* bilduman, oster, olerki batzuk poesitik naiko aldenduak aurkitzen dodaz; eta neurtitza beti labor ta bardin-antzekoa apur bat ezberetzko ta aspergarri be iruditzen yat.” (Luis Arostegi, in URKIAGA'TAR Estepan, *Olerkiak*, Etor, Donostia, 1974 32 or.)

Guk ez dugu poesiak aztertzekeo asmorik. Gauza bat da garbia: bi liburuotan agertzen dela Lauaxetaren alderdi erromantikoa.

3.5. Lauaxetaren merituak

Lauaxeta, Lizardi eta Orixe dira olerkigintza modernoaren aitzindariak (J. Azurmendi: 11. *Zer dugu Orixeren alde* 178 or.)

Frantziako poesi modernoa Baudelaire-rekin hasi zen. Euskal Herrikoa Lauaxetarekin

Ezin ditugu, halere, biok maila berean ipini. Baudelairek Frantzian eta atzerrian eragin handia izan du.

Lauaxetaren lana askoz apalago da. Euskal Herrian, ordea, Lauaxetak ebaki zituen olerkiaren bide berriak. Berritasun horretaz ongi ohartua zegoen, bildumari eman zion izenak adierazten duen bezala.

“Pioner gazte” gara, esaten du berak (*Bide barriak*: “Itxasora!”).

Besteak beste hiru mailetan da aurrelari Lauaxeta: Gaietan, moldetan, hots, alderdi formaletan eta euskara sortzen.

3.5.1. Gaiak

Luis Arostegik hiru gai nagusi aurkitzen ditu Lauaxetaren olerkigintzan. Hiruak, hain zuzen ere, erromantikoen gai kutunak: maitasuna, gaztaroa-gaztetasuna eta igarokortasuna, hots, bizitzaren laburra (V Bibl. Arostegi, L.).

Lehengo aldiz euskal literaturan maitasuna eta emakumea sistemaz azaltzen dira. Ordu arte gai horiek azalduak ziren baina iragaitzez.

Gauza bera esan behar gaztetasunaz eta bizitzaren laburraz. Lauaxetak behin eta berriz ukitzen ditu minez eta antsiaz oratutako gai horiek.

Erlijioa, aberria eta gizarteko gorabeherak (“Langile eraildu bati”...) bigarren mailako gaiak ditugu, behin baino gehiagotan agertzen badira ere.

3.5.2. *Moldeak*

Zaitegiren ustez euskal erritmoaren sena inork baino hobeki adierazi zuen (Zaitegi, Jokin: “Urkiaga ta biok”. Bibl. Lauaxeta: *Olerkiak*, Etor, 9 or.)

Puntu aberatsa. Bertso ongi neurtuak eta jasoak, arkitektura eraikuntzak bezala, parnasianoen eraginez beharbada. Lauaxetak Lizardik baino gehiago indibidualizatzen ditu olerkiak. (Auñamendi, *Literatura*, III,42).

Errefrauaren teknikaz baliatzen da maiz, Espainiako *cancioneron* eta Duque de Rivas poesian ikusten dugun bezala.

3.5.3. *Euskara*

Lauaxetak euskara goi mailara jaso nahi zuen. Olerkiaren gorabehera guztiak azaltzeko gauza egin. Buru-bihotzetako zoko-moko guztiak argitzeko gai bilakarazi. Bertsolariak mundu objektiboa bikain azaltzen zuten bezala, olerkariak mundu subjektiboa, sentimenduen, antsien eta irritsen mundua argiz jantzi behar zuen mintzairaren bidez.

Eta lortu zuela esan liteke. Lauaxetaren sortzea euskara arloan ageri-agerian dago. Lexikoari garrantzi handia ematen zion eta batez ere kontu handiz ibiltzen da adjektiboak auke-

ratzean. Guztira esan liteke Lauaxetaren euskara poetikoa dela, lortua eta gaiari ongi lotua.

Halere noiz eta behin euskara zaila erabiltzen du. Batez ere hasieran, hitz berriak asmatu nahian, ilun idatzi zuen. Gero errazagora jo zuen.

Alderdi ilun hori Lizardirengan ere edireten dugu. Aldiz-al-diz ulergaitzak dira bion olerkiak. Luis Mitxelenak berak ere aitortu zuen ezin izan zituela Lizardiren olerkiak ulertu eta itzulpenaren laguntza behar izan zuela.

Lexikoan omen dago bion euskararen zailtasuna. Garbiegia omen da batzuetan edo gaizki ekarria bestetan. Aldez egia da, bai. Baina zailtasuna lexikoan bakarrik balitz, gaitzerdi. Maiz, batez ere Lizardik, joskera dute zaila.

Lizardik usu egiten ditu elipsiak eta joskera bihurritu. Euskaraz elipsiak beste hizkuntzez baino errazago egin litezke. Lar guztiak, ordea, txarrak.

Elipsiek ez dute esaera ulertezina egin behar. Baserritarrek etengabe egiten dituzte elipsiak. Baina bai garbi adierazi ere esan nahi dutena.

Lauaxetaren euskara eta batez ere Lizardirena noizean behin artifizialegia da.

Norbaitek esan lezake Gongoraren gaztelania ere zaila dela. Ez da gauza bera. Gongoraren gaztelania, here maila denotati-boan oso garbia da. Maila konnotatiboan, oso zaila ulertzeko.

Lauaxetaren eta Lizardiren euskararen zailtasuna, ordea, sarri askotan maila denotatibo hutsean dago.

Biotz *begietan* dela eta, Lauaxetak Lizardiri hauxe esaten zion:

“Neure ustez illun dira zeure olerki batzuk. Euskerea zeure morroi duzu, baiña noizbeinka iges egiten deutsu, ezin esitua.” *Azalpenak*, 127 or.

Molde berean kasu batzuetan berdintsu esan liteke Lauaxetaz ere. Guztira, baina, bere euskara Lizardiren euskara baino errazago eta barnekoiago da.

Dena delarik, biak dira olerkari handiak eta euskara poetikoaren sortzaileak.

3.6. Lauaxeta erromantikoa

Maiz Lauaxetak irakurtzen zuena bere moldera hartzen eta berrematen zuen, hau da, erromantikoen moldetan. “Quidquid recipitur, ad modum recipientis recipitur.”

Poeta erromantikoak oso ongi ezagutzen zituen. Becquer bihotz zolan sartua zuen:

“Becquer-ren “Rimas” umekondoak bere irakurten dabez.”
(KORTAZAR, J., *Azalpenak*, 138 or.).

Halere, berak ez du uste erromantiko denik.

“Neurekiko klasiko ez naz, romantiko bere ez” *Azalpenak*, 135).

Jakina, ez dago olerkaririk alde guztiz eta erabat sail baten koka daitekeenik. Guztira, ordea, ezaugarri batzuek poeta baten norabide nagusia erakusten digute.

Lauaxetaren kasuan ezaugarri horiek erromantizismo sailean sartzen dute.

3.6.1. Erromantizismo ezaugarriak Lauaxetarengan

Erromantikoen olerkigintzan agertzen diren giltza hitzak Lauaxetaren lanetan behin eta berriz aurkitzen ditugu: maitasuna, emakumea, libertatea, lorea, arrosa, urretxindorra, zauria, mina, iturria, lilia, negarra, izarra, hilobia.

Aski da bere lanak irakurtzea. Olerki askoren izenburuan ere erromantikoen usaina aditzen da.

Hurrengo lerroetan irakurleari bide txigor bat erakutsiko diot, berak poliki Lauaxetaren erromantiar alderdia azter dezan.

Emakumea kantagai. Bere poesietan sarri aurkitzen da maitasuna eta maitasun hori ia beti emakumeari lotua.

Emakumea idealizatua da eta iritsi ezina, halabeharra da, patua, gizona nahigabearazteko. Iritsi ezina denez gero, giza-semea nahigabetua, atsekabetua bizi behar. Horregatik ia inoiz ez du emakume zehatzik, ez toki ezagunetako emakumerik aipatzen. (Mungiako erreka bai).

Egiazko sentimendua nonahi barrunta liteke, erretolika gabe, Becquerrengan bezala.

Libertatea. Euskal Herriarentzako ez ezik, idazteko ere bai:

“Zentzunak arau ta neurriak jarri bear deutsozala biotzari? Bai, baiña noragiño neurri orreeek jarri bear deutsozan, ezin azaldu geinke”. (*Azalpenak*, 133 or).

Hitzok erromantikoek behin eta berriz errepikatzen zituzten. Zentzu gutxiago eta bihotz gehiago.

Ilargia eta gaua maiz aipatzen ditu.

Leuntasuna: Lauaxetaren izaera ezta bere olerkietan agertzen da.

Sentikortasuna: minberak eta sentikorrak dira Lauaxetaren olerkiak.

Irudimena: gaietan baino, gaiak nola jantzi eta zein ezenean eman behar dituen asmatzen irudi handikoa agertzen da.

Etsipena, pesimismoa eta goibel giroa.

Fatalismoa oso agerian dago. Maitasun kontuetan batez ere, gizonak ezin zaio halabeharrari jazarri.

Erdi aroko gauza handirik ez: Amaiurko gaztelua, askatasunaren sinboloa.

Erromantikoetan bezala Lauaxetarengan ez dago oso bakan baizik grekoen eta latinoen mitologiarik, grekoen eta latinoen kultura sakonki ikasiak eduki arren. Jesuita zelarik, junioradoan batez ere kultura klasikoa ikasi zuen, Cicero, Plato, Sofokles, Virgilio, Horazio eta besteak. (Ikus G. Garate, *Karmel*).

Lauaxetak ez ditu bakan baizik legendak eta epika bere olerkietara ekartzen.

Euskal Herriko Becquer dei genezake. Lauaxetak, Beckquerrek bezala, ez du alferrikako hitzik erabiltzen. Baztertu egin ditu erromantikoen erretolika eta exotizismoa. Sentimenduan, ordea, haren antzekoa da.

Daniel Gaston jesuitak, Lauaxetaren ikaskideak esaten zidan Lauaxetak oso maite zuela Leopardi (1798-1837). “Il passero solitario”k eta “L’Infinito”k zirrara handia egin ziotela aitortu zion Lauaxetak berak.

Bide batez esango dut Giacomo Leopardi-ren *El gorrión solitario* Lizardiz oroitarazten digula.

Gastonek hitzak: “Lauaxeta era romántico. Era una persona callada, encerrada en sí mismo, melancólico”.

3.6.2. Bide barriak

Bide barriak zabaldu eta berehala topo egiten dugu erromantizismoaren seinaleekin. Hemen seinale batzuk:

- “Gazte gexua”, “Gexorik nago”: “Hogeigarren urtera, ari naiz hurbiltzen” herriko kanta oroitarazten digu).

- Erlijio. “Gurutze aldera”, “Miren Neskutza'ren baselexa”, “Goguaren eresija”: zauri, negar, gau, samin, “Jaungoikotija”: ilargia, erijotza, illun, gaba ta lañua, min, samin, malkuak, zauriz, mindubena, “Jaunagan atsedena”(Fecisti nos ad te, et inquietum est cor nostrum donec requiescat in te: San Agustinus, *Confesiones*), “Artzai ona”, “Miren'i otoyá”, “Siaskakua”.

- "Liparra": Bizitza laburra da. Erromantikoen kezka. Gaudemus, igitur, iuvenes dum sumus.
- Heriotza. "Arotzak", "Gaste gexua": etsipena. "Ezilkortasuna": heriotzaren larria, baina Lizardik bezela sinesmenaren argiz ikusia. Arratsa eta udazkena (Lizardirentzat bezala), herioaren etorrera adierazten. "Udagoienak itun jarri daroaz begiak eta biotzak. Eriotz irudia baita". [Ikus Bibliografia, J. KORTAZAR, *Azalpenak* 140 or.).
- Becquer oroitarazten. "Itauna": ilargia, maitasuna, "Erantzuna": goibelez ilargija, gaberdi baltzean. "Neguko gaba": hemen soriginak, gaua, "Bijotzean".
- Maitasun iritsi ezina. "Erantzuna": ilargia, "Jadetsi ezina", "Mao gorrija", "Iluntzeko-ixarra" "Ituna", "Iturri negarra", "Maitale kutuna", "Lili-negarra".
- Traizioa. "Abaua", "Ituna": tristura, "Zaurija".
- Gaua. "Gabeko irrintzija": samiña, kezka, negar zotinka.
- Maitasun galdua. "Ezkontza eguna". "Lied" (Heinrich Heinenen 1797-1856, bidetik. *Buch der Lieder*, 1827): malkoz, gabeko itzalez, illobia, zerraldo, "Betikorra", "Abestija": txindorra, "Bere illobijan": Kortazarren ustez Novalisen eragina.
- Etsipena. "Ludi ameskorra": /Ludi au ametsa/. Calderón: *La vida es sueño*. "Mosuba": malkua, samin, negar, "Goguaren eresija", "Señai abestu": /Miñak minduta ayots arratzak/bijotza urratzen dautsoe/. Negar (sarritan),/Zoritxarraren urratz ixillak etxian dakus bakarrik/.
- Naturara ihes egin. "Mendijetara", "Artxanda ganian": (Virgilioren lehenbiziko eglogaren hitzak) Bijotz mindu orrek... zadorra, "Goxaldeko-edurra": arima garbiaren sinboloa.
- Kontzientzia. "Itzarrrik", minezko bidea.
- Aberria. "Itxasora", arrizkubak, azkatasuna, zadorrak.

3.6.3. Arrats beran

Arrats bera: “Iñork ez bestean ulertu dau neure asmoa (Jauregik). “Arrats beran” idaztiz uste bat neukon. Gaurko egunez Europako letretan lantzen dabezan olerki motak geure ele onetan be biribildu” *Azalpenak*, 160 or.

Izena, *Arrats beran*, erromantikoa da. Goian esan dugunez, gaua eta iluna erromantikoen gai hautak ziren.

- “Neskatxu gorriska bati” (Apolo eta Daphneren mitoa) lili.
- “Zelayetakua”: urretxindorak, zure zauriak ziran gorriak!, ayots sotilla? Melendez Valdes-en poesiaren antzekoa. Lauaxetak neskatxaren barneko giroari arreta handiagoz so egiten dio. Birjintasuna ez ezik, alaitasuna ere galdu du.
- “Ezkontza-goxa”: “Goizian goizik jeiki nindüzün” erromantzearen oihartzuna. *Enarak baduaz*: Becquer “Volverán las oscuras golondrinas..”
- “Bertso zarrak”: zidarrezko turutak.
- “Oraingo maitarijak”: illargi, zidarrezko bitsa zaldijak jarijok, lora-artian, zaldittok, gabaren altxorra, HISTORIA: Romeo eta Julieta eta zaldiak ilargia jan zuen historia.
- “Burtzaña”: arrats, zelaiko gentz osua. /Lerdijak ez bijotzik, ezta arratsak samiñik/: Altzak ez du bihotziz ez gaztanberak ezurrik.
- “Espetxequarena”: (*V Antologia de la poesia. romántica española*: 15,29,41,59 *Cancionero y roman. esp.* 188 or.) azke, urretxindor, lerr-artian, aberri amaren negarra
- “Sevres’ko murkua”: Kortazarrek: “On a Grecian Urn”en eragina. ezpanen gorrijoi, artzain.
- “Izlapurra”: Esproncedaren “La canción del pirata”, baina maitasunera zuzendua. /nor aldendu daitteken urrin!/
 - “Kanta arifña” (Anakreontika): gabaren azken-altxorra, gaztaro au galtzekuan.

- "Itxastar gaste bati": /loren lekatara mosu samurrez eldu zanian/
- Narkis (Mitologiaren ildotik): zidarrean, lorak.
- Goxaldeko otoa: /Orra larrosak/
- Kiñuba: loraz, Erijo, ametsentzat, zaldijak, "Arratsa".
- Artzañena: Fonte-Frida-ren eragina. Lerdijok. /bijotzak dagoz min bixijan/, Esaera zaharra: /Basoko artzañak akartu, bertantxe gastayak agertu/.
- "Abeslari bati": /Ta pianu aren kolkuan/eun txindorr ebiltzan urduri/. Becquer. /En la pila del bautismo, se bañan los ruiseños/, /Bidaldi luzerako deya/, ler-ostrotzan.
- Jostalluba: Odol-larrosen antzera (Heine), lerdijoi. Olerki honek Becqueren usaina du. Hori ikusteko, hobe erdal itzulpena irakurtzea.
- "Españartxu batena". Erromantzea. Abenabar-Abenabar, moro de la morería" oroitarazten digu: Españolito de la españoleria.

Ruiz-Albar, zaldijan. Lanzaroterena ere bai: Nunca fuera de caballeros... Y diez doncellas que te sirvieran, las ancianas de día, las juvenes de noche.

Lanzarote y el orgulloso:

"Nunca fuera caballero - de damas tan bien servido
como fuera Lanzarote - cuando de Bretaña vino,
que dueñas curaban de él, -doncellas del su rocino.

- "Mendigoxaliarena". Erromantze epiko-lirikoa. /Dana emon biarr yako/maitte dan azkatasunari/. Hitzok William Wordsworth-en beste hariiek oroitarazten dizkigute: "Upon liberty and upon liberty only, can there be/permanent dependence".
- "Mutxurdiña": Euskal bertsoaritzaren barruan dator olerki hau. Espainolek bertso anitz botatzen dizkiete "amaginarrebei",

“a las suegras”. Euskal bertsolariak ez. Bertsolariak mutil zaharrei eta mutxurdinei.

- “Otsokorena”. Erromantzea. /Zidar-uledun otsoko/, Urretxindor.
- “Ondartza”. Zador, erijotz.
- “Itxas-ondokoena” (Romancero): arrisku-miña?, galtzori,
- “Ardua ta atsua”. Herriko gaia.
- “Udabarriko autorrkuntza”. Herriko kantu baten oinarriturik.
- “Zelayan”. Romance. Melendez Valdezen ildotik.
- “Mayatzeko gurutza”. Herriko erromeriak ekartzen dizkigu gogora. Lore.
- “Ziñiste-bakuarena”. Romance.
- “Iru zaldunak”. Erromantze. Zaldun zintzoa aberriaren alde.
- “Bolutxu zurija”. Cancionero.
- “Langille eraildu bati”. Gizarteko gorabchera bezain inportantea da tragedia, etsipena eta heriotzaren kezka.
- “Etxeko alabea”. Erromantzea. Herriko kantu baten oinarritua: “Aita nuen saltzaille/ama diruen artzaille/nere anaia Bernardo/moru errira entregatzaille.” negarrik, zaldi zuri.
- “Mayatzeko kantea”: zidar, lora-erditze, zauritu.
- “Txo Moskortuba”: zauritu, Auxe samiña.
- “Txiribogiñaren alabea”: mindubak,samin, zauriz.
- Begijen omenez: zauritu.
- “Amayur gaztelu baltza”. Aberria da kantagai: zidar, lili.

3.6.3.1. “Artzain baten erijotzean”. Iturriak

Olerki honen inspirazioa toki batetik baino gehiagotik jaso zezakeen Lauaxetak. [Irakurri V.G.D 77 CR 41, 79,84,112 R 44 P 23,]

Honatx "canción" hau.

Por una vez que los ojos alcé
Dicen que yo le maté;
Ansí vaya, madre, virgo a la vigilia,
Como al caballero no le di herida.
Dicen que yo le maté. (V Bibl. Damaso Alonso, 41 or.)

Heinen bi poesiok ere ezagutuko zituen Lauaxetak:

Heine:

Die Bergstimme

Ein Reiter durch das Bergtal zieht,
Im traurig stillen Trab:
Ach! zieh ich ins dunkle Grab?
Die Bergstimme Antwort gab:
Ins dunkle Grab!

[Mendiko ahotsa

Zaldun bat ibarrean barna doa
urrats isil tristez.
Ene, hilobi ilunera al noa?
Mendiko ahotsak erantzuna eman zion:
Hilobi ilunera.

Der wunder Ritter

Ich weiss eine alte Kunde,
Die hallet dumpf und trüb:
Ein Ritter liegt liebeswunde,
Doch treulos ist sein Lieb. [HEINE...I Werke, 48 or.]

[Zaldun harrigarria

Badut antzinateko berri bat,
sor eta nahasi durundatzen du:

Zaldun bat maitasunez zauritua datza,
Bere maitasunak, baina, ez du erantzunik.]

Ein Weib romantzeak ere badu “*Artzai baten eriojetzean*”-
en antza [HEINE 247 or.]

Besteok ere merezi du irakurtzea:

“Das Liedchen von der Reue”: “Zwei Röslein sind die
Lippen dort

(HEINE, Werke, 49 or.)

“Und nur die Lippen, die sind rot” (HEINE o.c..63 or.)

Wie der Kuss von ihrem Mund Heine 64 Warum sind
denn die Rosen so blass HEINE 70

Die ganze Welt der Schmerzen, muss ich tragen (Die
Heimkehr) HEINE 102

Heinek *Atta Troll* poemak euskaldunak aipatzen ditu:

“Auf dem Haupt die scharlachrote/Altbaskesische
Kapuze” 678 or.

Honatx Heinez zer dioen Sopena hiztegiak:

“Heine fue un romántico tardío, no sólo por su inclinación
a la soñadora fantasía del sentimiento, sino también y ante to-
do, por su genial subjetivismo y su irónico juego de formas y
estados de ánimo, parodiándose a veces a sí mismo y que-
brando con una aguda broma una expresión de sincero do-
lor”. (V Bibliografía. 641 or.)

4. AZKEN HITZA

Lauaxetaren olerkigintzan eragin nahikorik suma liteke. Ez
dut uste, ordea, besteak erromantizismoarena bezain indartsu
direnik.

5. BIBLIOGRAFIA

- ALONSO, Damaso: *Cancionero y romancero español*, Salvat,
1969

- AROSTEGI, Luis: "Poesi-gunetarantz", in URKIAGA´TAR Estepan "Lauaxeta": *Olerki guztiak*, 472-489
- BEHLER, Ernst: *Die Europäische Romantik*, 277 or. Ikus BAE, XVIII, e. Madrid 1952 63 alea
- BERTHON, H.E.: *Nine Franch Poets*, Macmillan & Co, New York, 1961
- CR *Cancionero y romancero español*, Damaso Alonso, Salvat, Madrid 1969
- *Cuentos del romanticismo español*, Salvat, 1972
- Espronceda, José de: *Poesías completas*. Edic. a cargo de Don Juan Alcina, Bruguera, Barcelona, 1968
- EVEREST, Kelvin: *English Romantic Poetry. An Introduction to the Historical Context and the Literary Scene*, Open University Press, Milton Keynes, Philadelphia, 1990
- GARATE, Gotzon: "Lauaxeta Jesusen Lagundian", in KARMEL, 2003-2004, Urria-abendua, 244, 3-24 orr.)
- GIL Y CARRASTO, Enrique: *El Señor de Bembibre*, Clásicos Ebro, Zaragoza, 1960
- HEINE, Heinrich: *Werke*, Ausgewählt und herausgegeben von Martin Greiner. Erster Band, Kiepenheuer und Witsch, Köln, 1962, 34 or.
- *Los románticos alemanes. Hoffmann, Novalis y otros*, Selección de Ilse. M. De Brugger. Centro Editor de America Latina, Buenos Aires, 1968
- HEATH, Duncan and Boreham Boreham: *Introducing Romanticism*. Totem Books, New York, 2000
- HOUGH, Graham: *The Last Romantics*, University Paperbacks, Methuen,ndon eta Barnes & Noble, New York, 1967
- LAUAXETA *Azalpenak, 1931-1935*, Aukeraketa eta itzaurrea: Jon Kortazar, Labayru, Bilbao, 1982

- LAUAXETA: *Olerkiak*. Jon Kortazarren edizioa. Erein, 1985
- LUCAS, F.L. *The Decline and Fall of the Romantic Ideal*, Cambridge at the University Press, 1963).
- MARCHIORI, Giuseppe: *Delacroix*, Ediciones Toray, Barcelona, 1971.
- R MARCO, Joaquín: *Antología de la poesía romántica española*, Salvat, Madrid, 1972
- *Novalis Werke und Briefe*, Insel-Verlag, Leipzig, 1942
- ONAINDIA, *Eskutitzak*, Larrea
- P Poesía romántica (Antología), Clásicos Ebro, Zaragoza, 1971
- PARNASO. Diccionario Sopena de Literatura. Hiru ale. Bi atzerriko idazleekin eta hirugarrena Espainiako eta Latino Ameriketako idazleekin. Edit. Ramon Sopena. Barcelona, 1972
- PENADES, JOSU: *Lauaxeta, historian bezurmamituriko sinesmena*. Deustuko Unibertsitatea,
- *Poesía romántica inglesa*. Ediciones Orbis, Barcelona, 1982
- *Poetas líricos del siglo XVIII*. Tomo I. Selección, estudio y notas por Higinio Capote. Editorial Ebro, Zaragoza, 1941
- *Romanticism. An Anthology*, Edited by Duncan Wu. Blackwell, Oxford, 1994
- *Romanticism. A Critical Reader*, Edited by Duncan Wu. Blackwell, Oxford, 1995.
- ROSALES, Luis: *Poesía española del siglo de oro*, Salvat, 1972
- SCHENK, Hans Georg: *Geist der Europäischen Romantik. Ein Kulturhistorischer Versuch*. Minerva GMBH Frankfurt am Main, 1970.
- SELMA, José Vicente: *El Rayo en tinieblas. Novalis y el saber romántico*. Fernando Torres, Valencia, 1980

- *Teatro romántico. La conjuración de Venecia, Don Alvaro o la fuerza del sino, Macías, Los amantes de Teruel, El trovador, Traidor, inconfeso y mártir*, Edic. a cargo de Juan Alcina, Bruguera, Barcelona, 1968
- URKIAGA'TAR Estepan, *Olerkiak*, Etor, Donostia, 1974.
- URKIAGA'TAR Estepan "Lauaxeta": *Olerki guztiak*. Santi Onaindiaren sarrera, Bilbao, 1985
- URKIAGA'TAR Estepan (LAUAXETA): *Bide barriak. Nuevos rumbos*. Aurkez Santi Onaindia. GEU, Bilbao 1931
- V.G.D. GAOS, Vicente: *Diez siglos de poesía española*, Selección de Vicente Gaos, Alianza Editorial, Madrid 1975
- VAUGHAN, William: *Romantic Art*. Oxford University Press, New York & Toronto, 1978. Bi liburuok neure gelan].
- ZARATE, Mikel : *Euskal literatura*, II

Gotzon Garate